



Gazteen Informazioaren Europako Gutuna

Gazteen Informazio eta Aholkularitzarako Europako Agentziaren (ERYICA) 29. Batzar Nagusiak onetsi zuen gutun hori, 2018ko apirilaren 27an, Cascais-en (Portugal)



Atarikoak

Gizarte konplexu eta digitalizatueta bizi gara, erronka eta aukera aunitz eskaintzen dituen mundu interkonektatu batean. Informazioa eskuratu ahal izatea, bai eta hura aztertzeko eta erabiltzeko gaitasuna ere, gero eta garrantzitsuagoak dira Europako eta bertze kontinente batzuetako gazteendako. Gazteen informazioak beren helburuak lortzen laguntzen die gazteei, eta gizarteko kide aktibo gisa parte har dezaten sustatzen du. Informazioa eman behar da gazteek aukera gehiago izan ditzaten, eta haien autonomia eta beren kabuz pentsatzeko eta jarduteko gaitasuna susta dezan.

Demokrazia, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeak berekin dakar gazte guztiek izatea beren kezka eta behar guztiei buruzko informazio osoa, objektiboa, ulergarria eta fidagarria eskuratzeko eskubidea. Informaziorako eskubide hori honako hauetan aitortu da: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Konbentzioan, eta Europako Kontseiluaren (90) 7, CM/Rec (2016) 7 Gomendioetan; gomendio horiek dira gazteen informazioari eta aholkularitzari buruzkoak, eta gazteek beren eskubideak eskuratzeari buruzkoak. Informaziorako eskubide hori da, halaber, Europar Batasunak gazteei informazioa emateko egiten dituen jardueren oinarria.

Gazteen informazioko orotariko lanak bere baitan hartzen ditu gazteei interesatzen zaizkien gai guztiak, eta hainbat jardura bil ditzake: informazioa, aholkularitza, laguntza, orientazioa, prestakuntza, berdinen arteko jarduerak, sarean lan egitea eta zerbitzu espezializatueta bideratzea, gazteak inplikatu eta ahalduntzeko. Jardura horiek gazteendako informazio-zentroek egiten ahal dituzte, edo bertze egitura eta ingurune batzuetako gazteendako informazio-zerbitzuek. Gutun honen printzipioak gazteen informazio orokorreko lan mota guztiei aplikatzeko dira. Herrialde bakoitzean ezarri beharko liratekeen gutxieneko estandarren eta kalitate-adierazleen oinarria dira, gazteendako informazio-estrategia global, koherente, baliabidez hornitu eta koordinatu baten elementu gisa. Izan ere, gazteen informazio-lana gazteen politikaren parte da.

Printzipioak

1. INDEPENDENTEA

- 1.1 Eskainitako informazioa osoa da, eskura dauden aukeren ikuspegi orokorra eskaintzen du eta iturri plural eta egiaztatuetan oinarritzen da.
- 1.2 Emandako informazioa independentea da, eta ez du erlijioaren, politikaren, ideologiaren edo merkataritzaren inongo eraginik.
- 1.3 Gazteen informazioa finantzatzeko iturriek ez dute arriskuan jartzen gutun honen printzipioetako bakar bat ere.

2. ESKURAGARRIA

- 2.1 Gazteen informazio-zerbitzuek informazio hori eskuratzeko berdintasuna bermatzen dute.
- 2.2 Gazteen informazio-zentroak eta -zerbitzuak erraz eskuratzeko modukoak, erakargarriak eta ikusgarriak dira gazteendako.
- 2.3 Gazteen informazioa ulergarria da gazteentzat.

3. INKLUSIBOA

- 3.1 Gazteen informazio-zerbitzuak gazte guztiendako irekiak daude, inongo diskriminaziorik gabe.
- 3.2 Gazteen informazio-zerbitzuak doakoak dira gazte guztiendako.
- 3.3 Gazteen informazio-zentro eta -zerbitzuak gazte guztiengana iristen saiatzen dira, talde eta behar desberdinendako eraginkorrak eta egokiak diren bitartekoen bidez.

4. BEHARRETAN OINARRITUA

- 4.1 Gazteen informazio-zerbitzuak gazteen beharretan oinarritzen dira.
- 4.2 Eskura dagoen informazioak gazteei interesatzen zaizkien gai guztiak biltzen ditu.
- 4.3 Gazte bakoitza gizabanako gisa errespetatzen da, eta galdera bakoitzari emandako erantzuna modu eraginkor eta egokian pertsonalizatzen da.
- 4.4 Gazteen informazio-egiturek laguntza eta zerbitzu pertsonalizatuak bermatzeko behar adina giza baliabide dituzte.

5. AHALDUNTZAILEA

- 5.1 Gazteen informazio-zerbitzuek gazteak ahalduntzen dituzte eta haien autonomia sustatzen dute.
- 5.2 Gazteen informazio-zerbitzuek komunikabideei eta informazioari buruzko trebetasunak ematen dizkiete gazteei, modu seguru eta arduratsuan ari daitezen.
- 5.3 Gazteen informazio-zerbitzuek herritartasun aktiboa eta parte-hartzea sustatzen dituzte.

6. PARTE-HARTZAILEA

- 6.1 Gazteek, hainbat maila eta modutan, parte hartzen dute gazteen informazioa sortzen, zabaltzen eta ebaluatzen.
- 6.2 Gazteen informazio-zerbitzuek berdin arako jardueretarako plataformak eskaintzen dituzte.
- 6.3 Gazteak animatzen dira beren iritzia eman dezaten, gazteen informazio-zerbitzuen garapenaren parte baitira.

7. ETIKA

- 7.1 Gazteen informazio-zerbitzuek errespetatu egiten dute gazteek intimitatea, konfidentziasuna eta anonimata izateko duten eskubidea, eta ingurune segurua eskaintzen diete.
- 7.2 Informazioa hautatzeko irizpideak publikoak eta ulergarriak dira. Informazioaren egilea eta helburua argiak eta begi-bistakoak dira.
- 7.3 Sortutako eta/edo zabaldutako informazio guztia zehatza, osoa, eguneratua eta egiaztatua da.

8. PROFESIONALA

- 8.1 Gazteen informazio-zerbitzuek langile kualifikatuak dituzte.
- 8.2 Gazteen informazioko langileek komunikabideei eta informazioari buruzko beharrezko ezagutzak dituzte.
- 8.3 Gazteen informazio-zerbitzuak lankidetzan aritzen dira bertze alderdi interesdun batzuekin, beharrak identifikatzeko, sinergiak bilatzeko, ezagutza teknikoak partekatzeko eta gazteen informazioa ikusgai jartzeko.
- 8.4 Gazteen informazioko langileak elkarlanean aritzen dira herrian, eskualdean, estatuan, Europan eta nazioartean, eta jardunbide egokiak eta ezagutzak partekatzen dituzte.
- 8.5 Gazteen informazioko langileak arduratzen dira gazteek zerbitzu digitalak erabiltzeko behar dituzten ezagutzak eta gaitasunak eskura ditzaten.

9. PROAKTIBOA

- 9.1 Gazteen informazio-zerbitzuak berritzaileak dira gazteengana iristeko estrategiak, metodoak eta tresnak aukeratzeko orduan.
- 9.2 Gazteen informazioko langileek badute berritasunen eta lege-aldaketa garrantzitsuen berri, eta ezagutzen dituzte gazteen artean nagusitzen diren joerak.
- 9.3 Gazteen informazioko langileak eragile proaktiboak dira komunikabide eta informazio berrien erabileran, bermatzeko gazteen informazioa ikusgai dagoela.